

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Bizkaiko piraten punk-hardcorea itsasoan berriro

Lau urteko atsedaldiaren ostean, bueltan ditugu Lekeitioko piratak, Bizkaiko golfoak, neurri batean formalduta, baina betiko amorru eta indarra plazaratzeko gogo biziz. Ontzia portura eraman zutenetik, beste hainbat bateletan ibili dira itsaso txikiagoetan, baina berriro ur handietan sartu dira hagineta arte armaturik. Bizi ditugun garaiak are eta ilunagoak eta eskasagoak direla-eta, gogor egiten dute ilegalizazioen, txikitzaileen, giza kontrolaren eta oro har zapaltzaileen kontra. Horretarako, hastapenetan egiten zuten punk-hardcore azkar eta gogorra berreskuratu dute, RKLren eskolakoa, baina beti bezala gitarra riff metaleroak eta rapeatu batzuk batuta. Bada beste salbuespenik: Nok-eko kideekin egindako pieza punk-rockero bat eta Des-Kontrolen kideek lagundutako abesti punkyagoak.



Apurtu arte

Etsaiak

BAGA BIGA

Iraupena: 33'19"
11,50 euro

ETSAIAK

«Atsedaldiaren ostean oso argi genuen taldearen sustraietara jo behar genuela»



Gelditzeko bueltatu zarete? Zer ikasi duzue taldea isilik egon den bitartean?

Oraindik ez dugu erabaki noiz arte joko dugun. *Kaos* diskoa kaleratzean konturatu ginen urte asko generamatzala eta inertziak eramaten gintuela. Horregatik, erabaki genuen bakoitzak bere proiektuak garatzea. Hori oso aberasgarria izan da, eta Etsaiak indar gehiagorekin hartzeko gogoia piztu digu. Hatortxu jaialdian esku hartzeko elkarrekin ginen, gero Gusarock ekimena sortu zen... eta orain disko berria kaleratu eta plazaz plaza aritzeko gogoia genuen. Baina ez dakigu noiz arte jarraituko dugun.

No. Punkarena ezetzaren belaunaldia izan zen. Horretara bueltatu beharko ginatete?

Beltza dago guztia, inoiz baino okerrago. Horrek behar ditu erantzun gogorrak eta protesta. Salbuespen egoeran gaude, eta jende asko isilik dago.

“Sakonetik badatoz kimu berriak loratzen”. Zer-nolako entzuleak dituzue itzulera honetan?

Denetarikoak. Oraintxe ezagutu gaituztenak; entzun bai, baina orain arte ikusi ez gaituztenak; gure sasoiko batzuk... Ezin gara kexatu, jo eta jo gabiltza-eta.

Disko honek asko du aspaldi ezagutu genuen Etsaiak-etik: RKL, besteak beste.

Lehen aipatutako atsedaldiaren ostean oso argi genuen taldearen sustraietara jo behar genuela. Eta bai, RKL taldea betidanik asko gustatu zaigu, eta asko erakutsi digu. Nahi eta nahiez eragin horiek irten egiten dira. **Otsoa ardi larruz ohiko soinutik aldentzen da, punk-rockeroagoa da...**

Nok taldearekin jotzen genuen, baina ez genuen inoiz grabatu. Horregatik abestu dute Nok-eko bi lagunek. Hala irten zen, eta gustuko dugu.

Non dago piraten altxorra? Zer da Etsaiak taldeak lortu nahi duena?

Altxor bat litzateke *Presoak SOS* gure kantuetatik kentzea, nahiko nuke halako kanturik abestu behar ez izatea. Baina zoritxarrez beti egongo da presoren bat, beti egongo da norbaiz...